



**EAE-KO NEKAZARITZA ETA BASOGINTZA  
SEKTOREAN LAN ARRISKUAK PREBENITZEKO  
PLAN INTEGRALA  
2007-2009**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

NEKAZARITZA, ARRANTZA  
ETA ELIKADURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA,  
PESCA Y ALIMENTACIÓN



- 1. AURREKARIAK ETA ESPARRUA**
- 2. PUBLIKO OBJEKTIBOA ETA PLANAREN HELBURUAK**
- 3. AZTERKETA ETA EBALUAZIO SEKTORIALA**
- 4. ARLO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUKETA ILDOAK**
- 5. AURREKONTUA ETA PLANAREN KUDEAKETA**

## 1. AURREKARIAK ETA ESPARRUA

1. Eusko Legebiltzarrak, 2006ko otsailaren 17an eginiko bilkuran, legekua ez den proposamen bat onetsi zuen, nekazaritza eta basogintza sektorean lan-arriskuak prebenitzeko jarduketa-plan integralari buruzkoa, eta Eusko Jaurlaritzari dei egin zion honetarako:

- a) Urtebeteko epean, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak 2006-2008rako nekazaritza eta basogintza sektorean (PPRLSA) lan-arriskuak prebenitzeko jarduketa-plan integral bat prestatzeko, Osalanek eginiko azterlanean aurreikusitakoaren arabera, eta Gobernu Kontseiluak onesteko.
- b) Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak, plana prestatzerakoan, horretarako eraturako eta sektorearekin lotura zuzena duten erakundeek osatzen duten batzordearen aholkularitza aintzat hartzeko.
- c) Plana prestatu eta onetsitakoan, Legebiltzarrean aurkezteko.

2. Akordio hau gehitu zaio Gobernuaren VIII. Legealdiko ekintzaren plangintza-agiriari. Gobernu Kontseiluaren 2006ko ekainaren 27ko Akordioaren bidez onetsi zen. PPRLSA prestatu eta onesteak bat egiten du, aldi berean, Gobernuak VIII. Legealdi honetarako izenpetutako Koalizio Hitzarmenean hartutako konpromisoekin. Gobernu-programak "elkartasuna eta gizarte-justizia" defendatzen du gobernu-ekintzaren oinarrien artean (zehazki horrela errotulatu da Hitzarmenaren "II. oinarri programatikoa") eta, konpromiso horren ardatzen artean, nabarmentzekoa da bereziki "lan-osasuna eta -segurtasuna" (II. oinarri programatikoa 2. atala).

Zentzu horretan, hau adierazi du: "...beharrezkoa da prebentzio, kontzientziazio eta sentsibilizazio esparruetan, prestakuntzan eta lan-prebentzioko arautegia zorrotz betetzean jardutea". Lanean ongizate globala lortzeko eta lan-ingurune segurua eta osasungarria lortzeko zenbait neurri hartzea sustatzen du.

3. Eusko Legebiltzarraren agindua betez, aurreko puntuan adierazitako esparruaren barruan, eta euskal nekazaritza eta basogintza sektorearen egitura-ezaugarriak eta idiosinkrasia kontuan hartuta (enpresen atomizazioa, arriskuan dagoen biztanleria-mota, zereginen aniztasuna, behin-behinekotasuna, sektorearen antolakuntza-egitura, etab.), Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak (DAPA), OSALANen partaidetzarekin, Nekazaritza eta Basogintza Sektorean Lan Arriskuak Prebenitzeko Jarduketa Plan Integral hau prestatu du, 2007-2009rako, sektorearen ikuspegitik lan-ingurune seguru eta osasungarriak lortzeko Gobernuaren programa eta plan orokorrenak zehazten dituzten neurriak sartuta.

4. Nekazaritza eta basogintza sektoreko plan honek bere egiten du 2003-2006rako Lan Segurtasun eta Osasuneko Plan Zuzentzailearen premisa hau: "laneko segurtasuna eta osasuna ez da lan-jardueren barneko beste inguruabar bat. Ez da erakundeak ematen dituen produktuen edo zerbitzuen emankortasuna edo kalitatea baldintza dezakeen zerbait. Alderantziz, laneko segurtasuna eta osasuna Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten langile guztien eskubidea eta betebeharra da. Lanpostuaren arrisku inplizituekin bizi behar dugu, baina ezin gara inolaz ere konformatu saihestezinak direla pentsatuta. Prebentzioa, lan-arriskuen aurrean jarduteko oinarritzko printzipio gisa, lan-munduari eta gizarteari, oro har, helarazi behar diegun lehentasun bat da".

5. Nekazaritza eta basogintza sektorean lan-segurtasuna eta -osasuna egoki tratatzeak pizgarri

onuragarria ekarriko du erkidegoko erakundeek Lisboako Estrategian finkatutako jarraibideen arabeko hazkunde ekonomikoa lortzeko helburuan, 2010erako "munduaren ezagutza lehiakorragoan eta dinamikoagoan oinarritutako ekonomia, ekonomikoki modu jasangarrian hazteko gai dena, enplegu gehiago eta hobeeekin, eta gizarte-kohesio handiagoarekin" lortzeko. PPRLSArekin, beraz, nekazaritza eta basogintza sektorean lan egiten dutenen erabateko osotasuna sustatu nahi da, bizitza-kalitatea handiagoa, hazkundera eta enplegua lagunduz, erkidegoko erakundeek ezarritako baldintzetan.

6. Plan honetan jasotako neurriak, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari emaniko jarduketak-esparruez bestelakoetan ondorioak dituztenak, gauzatzeak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak, OSALANek bereziki, "lan-arriskuen prebentzioari" dagokionez eta indarreko erakunde-ingurunea kontuan hartuta egiten duen jarduerarekin modu egokian bateratzea dakar eta hori du premisa gisa. Diseinatutako neurriak, aldi berean, bat etorriko dira Europako Batasuneko erakundeek gai horretan finkatutako jarraibide orokorrek, eta kontuan hartuko dituzte Estatuaren Administrazioak egiten dituen jarduketak, lan-arriskuen prebentzioarekin lotutako lan-esparruko arauzko eta ikuskapeneko eskumenak dituen neurrian.
7. Langileen segurtasunaren eta osasunaren zuzenean edo zeharka lotutako euskal administrazioen jarduketetan OSALANek duen garrantzia dela-eta, erakunde hori funtsezkoa da PPRLSAN jasotako neurri zehatzak modu egokian bateratzeko, bai Laneko Segurtasun eta Osasunerako Plan Zuzentzailearen esparruan egiten direnei dagokienez, bai laneko segurtasunaren eta higienezko esparruarekin lotura izan dezaketene dagokienez; hala nola, 2004-2007rako Sasoikako Langileei Laguntzeko Plan Integrala, 2002-2010erako Osasun Plana, 2002-2006rako EAEko Ingurumen Esparruko Programa, etab. edo PPRLSA honen indarraldian egin daitezkeenak. Ondorioz, hemen esplizituki jasotzen da OSALANen laguntza hori garatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko.
8. PPRLSA hau nekazaritza- eta basogintza-jardueretan esku hartzen duten eragileek (elkarte eta erakunde profesionalak, sindikatuak, kudeaketa-zentroak, prebentzio-zerbitzuak, administrazio publikoa eta pertsona adituak) eginiko lanaren emaitza da, eta kontuan hartu dira sektorearen idiosinkrasia eta sentzibilitate desberdinak. Halaber, plan honek, jasotzen dituen neurriekin, tartean diren eragile guztientzako azterketarako eta ekintzarako tresna izan nahi du; horren arabera, lankidetzan eta lan bateratuan dago ezbehar-kopurua murrizteko eta lan-baldintza seguru eta osasungarrietan lan egiteko gakoa.

## I. PUBLIKO OBJEKTIBOA ETA PLANAREN HELBURUAK

9. PPRLSA honen publiko objektiboa CNAE-93an jasotako jarduerak garatzen dituzten enpresak eta pertsonak dira:

- CNAE 01. Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta jarduera horiei lotutako zerbitzuetako jarduerak: nekazaritzako ekoizpena, abeltzaintzako ekoizpena, nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpenak, nekazaritzarekin, abeltzaintzarekin eta ehizarekin lotutako zerbitzuetako jarduerak, animaliak harrapatzea eta birpopulatze zinegetikoa, horiekin lotutako zerbitzuetako jarduerak barne.
- CNAE 02. Basogintza, basoen ustiaketa eta horiei lotutako zerbitzuetako jarduerak: (0201) basogintza eta basoen ustiaketa eta (0202) horiei lotutako zerbitzuetako jarduerak.

Plan honek ere kontuan hartuko ditu ustiatzearen eta lehen sektoreko jarduerarekin lotuta egiten diren transformazio-jarduerak ere (gaztak egitea: CENAE 15512; ardogintza: CENAE15932; sagardoa egitea: CENAE15940 eta landa-turismoa).

10. Plan integral honen publiko objektiboa, hein handi batean, soldatarik gabeko langileak eta prebentzioaren esparruan sentsibilizazio txikia duten eta prestakuntza-premia zehatzak dituzten aldi baterako soldatapeko langileak dituzten mikroete enpresek osatzen dute, baina badute zerbitzuen berezko antolaketa-egitura bat, kontzientziazteko eta pixkanaka sektorean prebentzioa ezartzeko baliabideak eta baliatu behar dena.

11. Planaren helburu nagusia lan-baldintzak hobetzea eta istripuak (kalte pertsonalak eragin ala ez) eta lanbide-gaixotasunak saihestea da, prebentzio-printzipioa barneratzen duten lan-sistemak aplikatuz.

Helburu nagusi hori lortzeko, hau zehazten da Planean:

- Nekazaritza eta basogintza sektorea pixkanaka hobetzen lagunduko duten jarduketako-ildoen multzo egituratua, lehenik, indarreko arautegia bete behar dutenen eta, bigarrenik, indarreko legeria bete beharrik ez izan arren, antzeko arriskuak pairatzen dituzten lan-arriskuak prebenitzeko.
- Aurreikusitako jarduketako-ildo eta jardueren ezarpen ordenatua eta eraginkorra ahalbidetuko duen kudeaketa-eskema bat.

## II. AZTERKETA ETA EBALUAZIO SEKTORIALA

12. Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza eta basogintza sektoreko enpresen kudeaketan lan-arriskuak pixkanaka prebenitzeko eta lan-osasun hobetzeko estrategia eraginkor bat definitzeko, aurrez sektorea alde horretatik zein egoeratan dagoen aztertu behar da modu egokian.

Hortaz, enpresaren egitura, gizarte- eta lan-egitura eta antolaketa-egitura, arrisku-motak, ezbehar-kopurua, prestakuntza, etab. bezalako parametroak dira nekazaritza eta basogintza sektorean atal honen helburua eta plan integrala diseinatu eta proposatzeko abiapuntua, plan horrek, errealismotik, nekazaritzako eta basogintzako enpresei (gehienak mikroeteak dira) pixkanaka lan-arriskuen prebentzioa kudeaketako aldagai garrantzitsu gisa hartzen lagun diezaien.

Atal honek OSALANek EAEko nekazaritza eta basogintza sektoreko lan-arriskuen prebentzioaren egoerari buruz eginiko azterketaren datuak (2004ko azaroa) eguneratzen eta osatzen ditu.

### Enpresaren egitura eta gizarte- eta lan-egitura

13. Euskal Autonomia Erkidegoko 1999ko Nekazaritzako Erroldako datuek erakusten dute 011, 012, 013 eta 021 CNAEekin bat datozen nekazaritzako eta basogintzako 39.956 ustiategi daudela guztira, 69.685 pertsonak egiten dutela lanen bat horietan, eta urteko 28.335 lan-unitate (ULU) batzen direla. Pertsonen guztizko kopurutik 65.347k ez dute soldatarik (25.344 ULU 37.991 ustiategitan), 4.338k soldata finkoa dute (2.310 ULU 2.161 ustiategitan) eta 155.267 behin-behineko lanaldi dira (681 ULU 2.857 ustiategitan). Soldatapeko langileak dituzten nekazaritza- eta basogintza-ustiategiak 4.509 dira.

Soldatarik gabeko ULU guztietatik 14.708 ustiategiaren titularrak dira, 4.715 familiako kideak eta gainerako 5.921ak bestelakoak. Ustiategien titularren (14.708 ULU) % 70 ustiaketan soilik jarduten dira, % 28k beste irabazi-jarduera nagusi bat dute eta % 2k bigarren irabazi-jarduera bat dute.

Orientabide Tekniko Ekonomikoak (OTE) eginiko nekazaritza- eta basogintza-ustiategien sektore-azterketa batek (EAEko 1999ko Nekazaritzako Errolda) erakusten duenaren arabera, basogintzako OTEa zen kontratu finkoko eskulan gehien eskatu zuena (% 27), gero abeltzaintza (% 21), mahastizaintza (% 18), nekazaritza orokorra (% 18) eta baratzezaintza (% 7). Ranking-a aldatu egiten da kontratatutako ULUak kontuan hartuz gero: mahastizaintza (% 28), abeltzaintza (% 23), nekazaritza orokorra (% 20), basogintza (% 14) eta baratzezaintza (% 8).

Kontraturik gabeko langileei buruzko datuak aztertuz gero, belarjaleen abeltzaintza % 37,75koa zen, basogintza % 23,92koa, baratzezaintza % 5,35koa, nekazaritza orokorra % 5,93koa eta mahastizaintza, berriz, % 2,81koa.

Ustiategietako titular nagusien "adin" parametroa (EAEko 1999ko Nekazaritzako Errolda) honela banatzen da: % 10 dira 40 urtetik beherakoak, 40 eta 55 urte artekoak % 27, 55 eta 65 urte artekoak % 23, eta % 40 dira 65 urtetik gorakoak.

14. 0202 CNAEak (basoko jarduerarekin lotutako zerbitzuetako jarduerak eta basoen ustiaketa) landaketa, sasiak garbitzea, inausketak eta bestelako jarduerak egiten dituzten enpresak biltzen ditu; enpresa txiki edo ondasun erkidegoetatik, lan-eremuak bertan dituztenetatik, hasi eta erkidego mugakideetan lan-eremuak dituzten enpresetaraino. Ez dago kolektiboa guztira zenbatekoa den frogatzeko moduko informaziorik. Alde batetik, 125 enpresak makineria astuna dute eta hondeamakinazaleekin elkartuta daude. Euskadiko Basogintza Elkartearen Konfederakundearen datu-baseak, bere aldetik, basoko lanetan jarduten diren enpresen kolektibo bat azaltzen du, pertsona fisikoen 42 enpresak eta pertsona juridikoen 74 enpresak osatua. Kolektibo horiez gain, CNAE horrek barne hartzen ditu errematatzaileak ere; Euskadiko Zur Mahaia elkartearen datuen arabera, 35 enpresa biltzen dituzte AREFORen, eta ingurunean 400 langile dira guztira.
15. 01 eta 02 CNAEetako langile-kopuruari artisau-mikroeteei (gehienez 5 langile) dagozkienak gehi dakizkioke, CENAE hauetan bilduta daudenak: 15512: gaztak egitea, 15932: ardoa-txakolina eta 15940: sagardoa egitea. Guztira 85, 537 eta 80 establezimendurekin, eta 137, 854 eta 149 langilerekin, hurrenez hurren, 2003ko nekazaritzako elikagaien industrien direktorioko datuen arabera (SEAS-DAPA).
16. Datu horiek irakurrita eta EAEko nekazaritza- eta basogintza-ustiategietako lan-egiturari, bilakaerari eta lanerako moduari buruz eginiko hainbat azterketa ikusita, ondorio garrantzitsu batzuk atera daitezke sektorerako egokitutako prebentzio-estrategia egoki bat zehazteko:
- Enpresen atomizazioa: sektoreko enpresa gehienak familiako enpresak dira, txikiak eta sakabanatuak, eta titular nagusia norbere konturako araubidean dago afiliatuta.
  - Arriskuan dauden biztanleak: lan-arriskuak pairatzen dituzten biztanleak ez dira titularrak soilik, baizik eta beren zuzeneko familiartekoak ere bai, erretiroa hartuta dutenak eta lanaldi partzialeko nekazariak. Azken horiek, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean afiliatuak; jarduera nagusia dela-eta, nekazaritza ez den beste jardueretarako sektoreetan lan eginez lortzen dute beren diru-sarrerara handiena. Ustiategi horietako askok soldatapekorik ez duen arren, 1999ko Nekazaritzako Erroldak uneren batean soldatapeko finkoak edo behin-behinekoak dituzten ustiategi dezente azaltzen ditu.
  - Adin-piramidea: ustiategiaren nagusi diren titularren % 63k baino gehiagok 55 urtetik gora dituzte, eta horrek osasun-arrisku eta arazo handiagoak dakartza beren jardueraren garapenean prebentzio-neurriak ezartzeko. Euskal Nekazaritzako Elikagaien Administrazioa sentsibilitate handiagoa duten gazteak sartuz (Gaztenek Plana) sektorea gaztetzea sustatzen ari den arren, oraindik kolektibo handi batek zailtasunak ditu prebentzioaren kultura barnerratzeko.
  - Eginkizunen aniztasuna: langileak askotariko lanak egiten ditu, askotan bakarka, batzuetan lan gogorrek eta zailak, eta horiek eragina dute sektoreko ezbehar-kopuruan, bai eta langileen bizitza-kalitatean eta lan-baldintzetan.
  - Behin-behinekotasuna: sektoreko lanen behin-behinekotasunak eta langile etorkinen presentziak laneko segurtasunari eta osasunari buruzko problematika zehatzari bizitza-baldintzen eta ingurunearekiko harremanen beste oinarritzko arazo batzuk gainjartzen dizkiote.
- 2004ko urriaren 5ean, Gobernu Kontseiluak Sasoikako Langileei Laguntzeko 2004-2007rako Plan Integrala onetsi zuen, eta urriaren 7an horren berri eman zitzaion Eusko Legebiltzarrari. Honakoekin lotura duten eremu, jarduketak eta ekintzak zehazten dira bertan: ostatu hartzeak, jatorrian

kontratutzea, kontratatutakoen eta kontratisten prestakuntza (lanarekin lotutako gai teknikoetan, PRLko oinarriko arauak barne, eta 2004/2005 urteetan prebentzio-eskuliburu bat prestatuta), adingabeei laguntzea, Lan Hitzarmena lortzeko aurreratzen laguntzea (besteak beste PRLko betekizunak jasotzen dituen) eta gizartea sentsibilizatzeko kanpainak.

- Lan-arriskuak pairatzen dituzten langileen prestakuntza txikia. Basoko zerbitzuen sektorean inertzia handia hauteman da hainbat lan-mota egiterakoan, jarduteko modu tradizionalak baldintzatuta.
- Ordezkapenak: EAEko nekazaritza- eta abeltzaintza-ustategiek geroz eta gehiago erabiltzen dute kudeaketa-zentroek Foru Aldundietako Nekazaritza Sailekin lankidetzan eskainitako ordezkapenen zerbitzua gaixotasunagatik edo istripuengatik baja-kasuetan eta ustategiaren titularraren oporraldiak estaltzeko. Horrek ustategian aldi batez kanpoko langileak sartzea dakar, jarduera mantentzeko.

### **Sektorearen antolaketa-egitura**

17. EAEko nekazaritza eta basogintza sektoreak, oro har, egituraketa-maila handia du; horren erakusgarri da elkarte gisa eratuak erakundeen sare zabala (abeltzaintzako arrazen arabera elkarteak, nekazaritzako laboreen arabera, basojabeenak, errematatzaileenak, erosketetarako, salmentetarako, etab.). Lurralde Historiko mailan berezko nortasun juridikoa dute eta, aldi berean, EAE mailan elkartzen dira.

Euskadiko Baso Jabeen Elkarteak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Baso Jabeen Elkarteak biltzen ditu eta, aldi berean, Euskadiko Zur Mahaia elkarteko kidea da. Azken horretako kide dira Errematatzaileen Elkarte (Arefor) eta Zuraren Transformazio Industrien elkarte ere, eta sartzeko zain dago basogintza-lanetako enpresen kolektiboa.

Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren esparruan badira hainbat elkarte profesional ere, beren kideei zerbitzu teknikoak eskaintzen dizkienak eta, aldi berean, AGA (Araba), SERGAL (Araba), LORRA (Bizkaia), LURGINTZA (Gipuzkoa) eta ABELUR (Gipuzkoa) kudeaketa-zentroen zerbitzuak jasotzen dituztenak. Ingurune publikoko enprekin koordinatuta lan egiten duten zentro hauek: NEIKER (Nekazaritzako eta Basogintzako Ikerketa eta Garapena), ITSASMENDIKOI (Nekazaritzako Heziketa eta Garapena) eta IKT (euskarri tekniko-informatikoak). EAEko nekazaritza- eta abeltzaintza-ustategien kudeaketa tekniko eta ekonomikoarekin lotutako premiak asetzen dituzte.

Kudeaketa-zentroetako teknikarien lana nekazaritza- eta abeltzaintza-ustategiekin zuzeneko harreman jarraia izatean eta haien ezaugarri tekniko eta ekonomikoak ezagutzean oinarritzen da. Kudeaketa tekniko-ekonomikoko zerbitzuaren sistema osoaren oinarria datuak bildu eta prozesatzeko nekazaritza-ustategietara aldizka egiten diren bisitaldiekin bermatzen da, eta informazio erabilgarria biltzen da abeltzain edo nekazariarentzat ez ezik, baita nekazaritza sektore osoarentzat ere.

Nekazaritzako erakunde sindikalak ere badira, eta horien artean hauek dira nagusiak: EHNE, nekazaritzako 4 erakunde profesional dituen (Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Arabako UAGA), eta ENBA, Bizkaian eta Gipuzkoan bi dituen.

Prebentzioaren testuinguru honetan, Euskadiko Nekazaritzako Kooperatiben Federazioa ere aipatu behar da; 10.000 kide kooperatibista eta 700 langile inguru dituzten 71 sozietate kooperatibo biltzen ditu. 71

kooperatiba horiek honela banatzen dira: nekazaritza-ekoizpeneko kooperatibak: 10, beren kideak, oro har, nekazaritzako araubide berezian egon ohi dira; horniduren kooperatibak: 17; pentsu-fabrikak: 6; kudeaketako zerbitzu teknikoek kooperatibak, oro har, araubide orokorreko soldatapeko langileekin: 8; komertzializatzaileak: 24; dolarea: 1; hiltegia: 1; makinak erosteko eta erabiltzeko kooperatibak: 5

18. Sektorearen antolaketa-egitura hau, sektorea modernizatzeko balio duena, aktibo garrantzitsua da Plan Integral honetan jaso daitezkeen jarduketako-ildoak diseinatzeko eta garatzeko.

### Arriskuak eta laneko ezbehar-kopurua

19. Nekazaritza eta basogintza sektoreak, kolektibo zabala eta sakabanatua denez, nekazaritzako eta basogintzako lanak egiteko makina-mota asko erabiltzearekin lotutako hainbat arrisku ditu, substantzia arriskutsuak ere tartean izaten dira, eta horrek guztiak, besteak beste, eragina du laneko ezbehar-kopuruan. Istripurik ohikoenak traktorea iraultzearen, baso-mozketetan zuhaitzak erori eta azpian harrapatzearen, goi-tentsioko lineak ukitzearen, altueratik erortzearen, motozerra erabiltzearen eta traktorearen indar-transmisioko ardatzak edo nekazaritzako beste makinaren zati mugikorrek harrapatzearen ondoriozkoak izaten dira.

20. Sektore honetako laneko ezbehar-kopuruaren azterketa estatistikoek behetik jotzen dute, norbere konturako nekazaritzako araubide berezian laneko istripu eta lanbide-gaixotasunengatiko prestazioek dituzten ezaugarri bereziengatik, araubide orokorrenekin edo besteren konturakoarekin alderatuta: aldi bateko ezgaitasunagatiko ekintza babeslea borondatezkoa da, eta prestazioak gaixotasuneko hamabosgarren egunetik aurrera bakarrik lortzen dira.

Berezitasun hori dela-eta, nekazaritzako araubide bereziko norbere konturako langileek gutxitan jakinarazten dituzte istripuetan hildakoak eta zauri arinak jasan dituztenak, azken horien kasuan, lanerako ezgaitasunak hamabost egun baino gutxiago irauten badu. Inguruabar hori islatzen da bajen batez besteko iraupenak gora egitean ere.

21. Orotara, norbere konturako araubidean ezarritako berezitasun hauek nabarmen murriz dezakete sektore honetako lanbide-lesioen estatistiken balioa benetako ezbehar-kopuruaren adierazle gisa, batez ere jarduera ekonomikoko beste sektoreekin alderatu nahi bada, eragin-, maiztasun- eta larritasun-indizeen bidez.

Distortsio horren berri ez izateak lan-arriskuen prebentzioari buruzko oso ondorio gaiztoak dakartza nekazaritza sektoreari dagokionez: nekazaritza sektorea nahiko sektore segurua dela uste da, eta uste okerra da hori; "ez dago seguru egotea uste eta ez egotea baino arrisku handiagorik".

22. Ondorengo taulan ageri dira nekazaritza eta abeltzaintza sektoreko (CNAE 001: nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin lotutako zerbitzuak) eta basogintza sektoreko (CNAE 002: basogintza, baso-ustiaketak eta horiekin lotutako zerbitzuak) EAEko laneko ezbehar-kopuruaren, lanaldiko istripuen eta bajako lanbide-gaixotasunen 2003ko, 2004ko eta 2005eko zifrak, aipaturiko testuinguruan irakurri behar direnak:

CNAE	ARIN ZAURITUAK						LARRI ZAURITUAK						HILDAKOAK						GUZTIRAKOAK								
	ISTRIP.			L. GAIX.			ISTRIP.			L. GAIX.			ISTRIP.			L. GAIX.			ISTRIP.			L. GAIX.					
	H	E	Guzt	H	E	Guzt	H	E	Guzt	H	E	Guzt	H	E	Guzt	H	E	Guzt	H	E	Guzt	H	E	Guzt			
2003																											



26. Prebentzioari dagokionez, sektore honen ezaugarri bereziak aintzat hartzen dituen legeria orokorra ez egokitzeaz gain eta enpresaren eguneroko jardueran prebentzioa sartzeko kontzientziazio orokorrik ez izateaz gain, badira prebentzio-planak ezartzeko zailtasun objektiboak ere, honako egoera hauen ondorio direnak:

- Ez dago sektore honetan espezializatutako KPZrik: OSALANek eginiko azterketatik ondorioztatzen denaren arabera, oraindik badira nekazaritza eta abeltzaintza sektoreko (CNAE 01) enpresa asko prebentzioa hitzartu gabe dutenak edota Kanpoko Prebentzio Zerbitzu askok ez dute sektoreko zerbitzu espezializatua eskaintzen.
- Sektoreak ez du prebentzio-modalitatea zehaztu: lau modalitateak konbina daitezkeen arren (Enpresaburuak bere gain hartzea, Izendatutako langilea, Kanpoko Prebentzio Zerbitzua eta Berezko Prebentzio Zerbitzua), enpresei dauden alternatibak azaltzeko ahalegina egin behar da eta sektorearen funtzionamendura ongi egokitzen den aukeraren bati bidea eman behar zaio.

Gorago azaldutako antolaketa-egiturak nekazaritza sektorean, Euskadiko Nekazaritzako Kooperatiben Federazioak 2005ean martxan jarritako Prebentzio Zerbitzu Mankomunatutik hasita, kudeaketa-zentroek garatzen dituzten nekazaritza- eta abeltzaintza-kudeaketarako sistemekin lotutako prebentziorako zerbitzu-egitura bat sortzeko aukera ematen du.

- Prebentzioa eta lan-osasuna zaintzeko zailtasuna: LPRLa eta garatu diren gidalerro zehatzak (lantokiak, lan-segurtasun eta -osasunerako seinaleztapena, NBEen erabilera, lan-ekipoen erabilera, agente kantzerigenoak, agente biologikoak, kargak eskuz erabiltzea, etab.) nekazaritza eta basogintza sektorean aplikatu daitezkeen arren, oraindik ez da sektore horretarako gidalerro berezi bat garatu, eraikuntzarako, arrantzarako eta meategietarako egin den bezala.

### **Sektoreko lan-arriskuak prebenitzeko prestakuntza**

27. Prebentziorako prestakuntza EAEn ez da plan honekin hasi. Eusko Jaurlaritzaren ITSASMENDIKOI sozietate publikoak, nekazaritza, basogintza eta elikadura sektorerako prestakuntza arautu eta jarraia EAEko arduradunak, 2002az geroztik Lankidetzaren Hitzarmen bat dauka izenpetuta OSALANekin, eta lan-bilerak egiten ditu OSALANen Arabako Lurralde Zentroarekin, IDEA fundazioarekin eta PRLko prestakuntzarako Arabako Lan Ikuskaritzarekin.

Azken urteetan hainbat ikastaro eskaini ditu ITSASMENDIKOIk Arkate, Fraisoro eta Derioko eskoletan; eskaintza Prebentzioko Oinarrizko Ikastaroan zentratu da, eta batez beste 20 partaide izan dituzte. Horrez gain, Itsasmendikoik prebentzioarekin lotura zuzena edo zeharkakoa duten ikastaroak eskaini ditu: Nekazaritza-eraikuntzetako segurtasun eta osasun koordinatzailea, ingurumen-erabileretarako plagiziden aplikatzailea (oinarrizko maila eta maila kualifikatua), landare-osasunerako produktuen aplikatzailea (oinarrizko maila), janari-erabiltzailea, sektoreko merkantzia arriskutsuak garraiatzeko baimena, basoko langileentzako prestakuntza, basogintzako biltzeko makinaren eta autokargatzaileen langileen prestakuntza, basogintza sektoreko sentsibilizazio-prestakuntza. Ondorengo taula honetan laburbiltzen dira Itsasmendikoik 2006ko ekitaldian eginiko ikastaroak:

### 2006KO IKASTAROAK

IKASTAROAK	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guzti ra	Parte-hart zaileak	ordu/ikasta ro
1. Prebentzioko oinarrizko ikastaroa	6	3		9	180	30
2. Arriskuak ebaluatzeko tailer-ikastaroa	6		3	6	120	10
3. Landa-turismoko prebentzio-ikastaroa			1	1	5	16
4. Motozerraren eta sasi-garbitzeko makinaren erabilera		1	1	2	135	30
5. Baso-koadriletarako ikastaroa		32		32	160	8
6. Nekazaritza-ingurumenerako laguntzak	1	3	4	8	240	4
7. Landare-osasunerako produktuen aplikatzailea (Oinarrizko maila)	12	4	2	18	450	25
8. Landare-osasunerako produktuen aplikatzailea (maila kualifikatua)	1			1	6	72
<b>GUZTIRA</b>	<b>26</b>	<b>43</b>	<b>11</b>	<b>80</b>	<b>1296</b>	

28. Bada prestakuntza kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin hitzarmena duten enpresetan ere. Basogintza sektoreko enpresa batzuek prestakuntza zehatza ematen diete beren langileei, beren metodo eta material didaktikoen bidez. Basogintza Prestakuntzako F4 Fundazioak, egoitza Nafarroan duenak, prestakuntza espezializatua eman die basogintzako enpresei.

#### Arriskuak eta aukerak: laburbilduta

Faktore soziokulturalak (prebentzioari eta segurtasunari ematen zaien lehentasuna), gaitasunekin lotutako faktoreak (arriskuari eta lanpostuari dagokionez pertsonen duten kualifikazioa eta gaitasuna), prozesuekin lotutako faktoreak (prozesuek zenbateraino bermatzen duten langilearen segurtasuna) eta ekipamenduak (Norbera Babesteko Ekipamenduen eta makinaren egokitasuna) dira sektorean prebentzioa ezartzeko arrisku eta aukera nagusiak agertzen dituzten parametroak:

Faktoreak	Arriskuak	Aukerak
<b>Soziokulturalak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤Gizarte-presiorik eza: norbere konturako langileak eta langile erdeinatuak (etorkinak, sasoiakoak, etab.).</li> <li>➤Nekazaritza sektoreko dualtasuna: Askotariko arrisku eta ezbeharren aurrean, nekazaritzako profesionalen eta prebentzionista profesionalen sentsibilizazio txikia eta prebentzio-azpiegitura eskasa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤Batzorde sektoriala sortzea.</li> <li>➤Gazteak sartzea.</li> <li>➤Informazio- eta dinamizazio-estrategiak.</li> <li>➤Prestakuntza-estrategiak.</li> <li>➤PRLaren kontzientziakzioa, inbertsio gisa, ez kostu gisa.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤Prebentzio-kultura historikorik eza: arriskua nagusi duen kultura</li> <li>➤"Formalki betetzeko" kultura.</li> <li>➤Biztanleria aktiboaren zahartzea.</li> </ul>	
<b>Gaitasunak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤Legeria ez da sektorearen ezaugarrietara egokitzen.</li> <li>➤Sektore honetan adituak diren profesional gutxi daude eta sektore honetarako material didaktiko gutxi dago.</li> <li>➤Basogintza sektorean eskulan espezializatu gutxi dago.</li> <li>➤Prestakuntza txikiko kolektiboetako biztanleria aktiboaren hazkundera (inmigrazioa, hizkuntza-arazoak, etab.)</li> <li>➤Lan-ekipamenduak egokitzen aditua den langilerik eza.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤Sektorea prebentzio gaien espezializatzeko "bekak" eskaintzeko aukera.</li> <li>➤Sektore honetako enpresaburuei eta langileei zuzendutako ikastaroak egiten jarraitzea eta ugaritzea.</li> </ul>
<b>Prozesuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤Oro har, bakarka aurre egin beharreko eginkizunen eta arriskuen ugaritasuna.</li> <li>➤Aire zabaleko ustiategiak, lan-zentro "mugikorra" dakartenak.</li> <li>➤Behin-behinekotasuna areagotzea.</li> <li>➤Langileen osasuna gutxi zaintzea.</li> <li>➤Teknologia gutxiagoko eta eskulan gehiagoko sektoreetako prozesuen arriskuak.</li> <li>➤Mikroeteak: kudeaketa-sistema antolatuak ezartzeko zailtasuna (langile-mugak, baliabideak, etab.)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤Administrazioa eragile traktore gisa.</li> <li>➤Aztertzeko eta laguntzeko behatoki bat abiaraztea.</li> <li>➤Mutualitateen eta prebentzio-zerbitzuen lankidetzak.</li> <li>➤Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuak zabaltzea sustatzea.</li> <li>➤Kudeaketa-zentroek aholkularitzari laguntzea.</li> </ul>
<b>Ekipamenduak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤Ekipamendu zaharkituak (lege-betekizunetara egokitu gabeak).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤Norbera Babesteko Ekipamenduak eskuratzeko erraztasun handiagoa</li> <li>➤Erakundeen laguntzak</li> <li>➤Babes-makina eta ekipamenduen ikerketan lan egiteko aukera (enprekin, erakundeekin, elkarteekin).</li> </ul>

### III. ARLO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUKETA ILDOAK

29. Arlo estrategikoak eta jarduketa-ildoak zehaztuta, nekazaritza eta basogintza sektorean lan-arriskuen prebentzioa eta lan-medikuntzaren aldeko ingurune egokia sortu nahi da, eta definizio honetan tartean diren eragileek kontziente izan behar dute prebentzio-tresna lehena eta nagusia enpresaburuak eta langileak araua betetzeko premiaren **uste osoa** izatea dela. Uste oso horretara iritea errazagoa izango da Euskal Nekazaritzako Elikagaien Administrazioak **elementu traktore gisa jarduten** badu, enkante, lehiaketa eta abarren esleipendunei dagozkien prebentzio-planak betearaziz, eta langileei alorreko lanak egiterakoan prebentzio-araudia betearaziz.

30. Kapitulu hau Eusko Jaurlaritzaren "2003-2006rako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Plan Zuzentzaileko" hitz hauetan oinarritzen da:

*"Lantokiko segurtasuna ez da gizarte-kultura osoarekiko modu isolatuan sortzen den zerbait. Beraz, segurtasuna gizarte desberdinetako kultur ondarean dagoen balio bat da.*

*Arriskuak saihesteko premia, aurrerapenak egin diren arren, oraindik ez da EAEko herritarrengan behar hainbat errotu den balioa. Gizarteko eta etxeko ohituretan segurtasuna ez dago oraindik erabat barneratua, eta, beraz, ez da erraza bat-batean garatzea lan-zentroen muga zeharkatzean, enpresaburu gisa zein langile gisa.*

*Plan zuzentzailearen neurriak diseinatzeko ez da eztabaidatzen lan-arriskuen gaineko erantzukizunen banaketa. Erantzukizun hori enpresaburuarena da soilik, Legeak ezartzen duen bezala. Plana istripuen kausak eragozten saiatzen da, istripurik gerta ez dadin".*

31. Premisa horiek eta aurrez eginiko diagnosis abiapuntutzat hartuta, estrategia esplizitu bat diseinatu da, errealistotik eta pixkanaka, nekazaritzako eta basogintzako eteen eta mikroeteen kudeaketan prebentzio-politika sartzen lagunduko duena eta, era horretan, lan-baldintzak hobetzeko eta istripuen eta lanbide-gaixotasunen kopurua murrizteko balioko duena. Horretarako, **zenbait jarduketa-ildo** identifikatu dira, beren artean lotura dutenak eta honako **5 arlo estrategiko** hauetan biltzen direnak:

- i. Informazioa eta dinamizazioa**
- ii. Prebentzio-plan zehatzen ereduak**
- iii. Prestakuntza**
- iv. Lan-osasunaren zaintza**
- v. Idazkaritza teknikoa**

#### I. ARLOA. Informazioa eta dinamizazioa

32. Prebentziorako sentsibilizatzeko, mezu argiak bidali behar dira abiapuntu gisa, hartzaileek argi jasotzeko modukoak. **Informazio-mekanismoak eta dinamizazio-egiturak** abiaraztea da, beraz, enpresaburuaren eta langileen artean lan-segurtasuna eta -osasuna sustatzeko lehen estrategia, pixkanaka eta etengabe nekazaritza eta basogintza sektorean prebentzioaren kultura ezartzeko.

Estrategia horren bidez, lehenik eta behin, ahalik eta jende gehienak prebentzioa kudeatzeko premia dagoela jakitean eta, gero, barneratzean datza, hori egiteko zerbitzu-egitura egokia izango duela jakinda. Enplegatzaileek eta enplegatuek, hori betetzeak ekar ditzakeen ondorio ekonomikoez eta erantzukizunez haraindi, prebentzioa lehenetsunez beren segurtasuna eta osasuna zaintzera bideratua dagoela barneratu behar dute, epe ertainera eta epe luzera kostuak murrizteko, emankortasuna handitzeko eta enpresaren kalitatea hobetzeko bidea izateaz gain.

33. Informatze, sentsibilizatzeko eta dinamizatzeko eginkizun honek, lehenik eta behin, nekazaritza eta basogintza esparruan lan-arriskuak prebenitzeko bidean neurriak diseinatzen eta ezartzen laguntzera deituta dauden eragile guztiek aktiboki parte hartzeko eta ardura beren gain hartzeko beharra du. Ondorioz, **lehenengo jarduketako-ildoak batzorde** sektorial bat sortzean datza, plan zehatzak egitea sustatzeko eta gero prebentzio-ekintzak gauzatzeko informazioa eta proposamenak bidaltzeko eta jasotzeko gune gisa. Batzordea, Plana onartu eta 6 hilabeteko epean eratuko da.

Batzorde hori, nekazaritza eta basogintza sektoreko erakunde profesionalak eta sindikalek (kudeaketa-zentroak, Euskadiko Zur Mahaia, Euskadiko Basogintza Elkarten Konfederakundea, Nekazaritzako Kooperatiben Federazioa, ITSASMENDIKOI, etab.) eta Herri Administrazioak berak (OSALAN, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila, Foru Aldundiak eta prebentziorako inplikaturako bestelako erakunde publikoak) osatzen dutena, elkartze-foro gisa eratu da, helburu hauekin:

- Nekazaritza eta basogintza sektorean lan-arriskuak prebenitzeko neurri eta ekintza garrantzitsuak planifikatu eta ezartzeko eta sektoreko langileen segurtasun- eta osasun-baldintzak hobetzeko proposamenak egitea.
  - Prebentzio-programak errazago ezartzeko, eragile sektorialen koordinazioa sustatzea eta sektorearen funtzionamendurako egokia den lan-arriskuen prebentziorako zerbitzu-egiturak babestea.
  - Prebentzio-alderdiei dagokienez, Estatuko eta Europako legeriari buruzko informazioa eguneratuta edukitzeaz eta arazoak aztertze eta irtenbideak aurkitzeko lagungarri izan dadin arduratzea, legeriaren betekizunak hobeto gauzatzeko xedez.
  - Enpresaburuen eta langileen prestakuntzara zuzendutako prestakuntza-plan zehatza diseinatzen laguntzea.
  - Edukiak aztertzea eta informazio-kanpainak egiten eta prebentzioa kudeatzeko eta lan-osasunaren zaintza hobetzeko prestatzen laguntzea.
  - Prebentzioa eta lan-osasuna hobetzeko balio dezakeen beste edozein proposamen egitea.
34. Batzordearen burua Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila izango da, eta OSALANen aholkularitza eta laguntza izango ditu, EAeko Lan Arriskuen Prebentziorako erakunde aditua den aldetik. OSALANek behar adina teknikari ezarriko ditu plana ezartzen laguntzeko, eta batzordearen idazkaritza-funtzioak egingo ditu.
35. Batzordeak bi komite sortuko ditu; nekazaritza sektorearekin lotua bata eta basogintzarekin lotua bestea, arlo bakoitzaren berezitasunak eta zehaztasunak jasotzeko. Batzordearen funtzioak garatzeko beharrezko diren euskarri teknikoak batzordeko kide diren erakundeetako langileek ezarriko dituzte, eta

OSALAN izango da horretarako erreferentzia berezia.

36. Batzordearen sorrerarekin lotuta eta prebentzio-politika sektorerera hurbiltzeko tresna zuzen gisa, planaren fase honetan **informazio- eta komunikazio-bideak indartzeko** apostu garbia egiten da, **bigarren jarduketa-ildo**a osatuz, sektorean, nekazaritzako lankidetzaz-esparruez eta enpresa kopuru txiki batez haraindi, dagoen ezagutza eza eta informazio eza konpontzeko bide gisa.

Oso hedatua ez bada ere, bada horren inguruko esperientziaren bat. Euskadiko Nekazaritzako Kooperatiben Federazioa duela 5 urte hasi zen bere ingurune kooperatiboko enpresak informatzen eta kontzientziatzen, enpresa eskatzaileetan prebentzio-auditoretzak egitea koordinatuz, eta horri esker, urte hauetan zehar, nekazaritzako kooperatibek prebentzio-legea betetzeari dagokionez nabarmen egin dute aurrera.

37. Dinamika horrekin jarraituz, hurbileko tresnak erabiltzea izango da asmoa, sektoreari lan-arriskuak prebenitzeko legearen eskakizunen berri emateko, EAEn alor honetan gaitutako politikak, programak eta jarduketak zabaltzeko, eta enpresa kudeatzeko tresna gisa lan-arriskuak prebenitzea komeni izatearen kontzientzia sortu eta mantentzeko, lehenik, eta prebenitu behar izatearen kontzientzia sortu eta mantentzeko, bigarrenik.

Jasotako tresnen artean, honako hauek aipa daitezke:

- Sustrai aldizkaria, telebistako Sustrai programa eta EAEn sektore horretan eragina duten aldizkako aldizkari edo argitalpenak.
- Internet, sektorearen intereseko atarien bidez.
- EAEko Nekazaritza eta Basogintza Administrazioak, prestakuntza-zentroek, kudeaketa-zentroek, sindikatuek, elkarteek eta abarrek zirkularrak, barne-komunikazioak, hitzaldiak, bilerak etab. erabiltzea. Adibide gisa:
  - a. ITSASMENDIKOIk EAEko nekazaritza eta basogintza sektorean prebentzioa aplikatzen laguntzeko ezarritako programen berri emateko atal bat barneratuko du bere ikastaroen aurkezpenean.
  - b. EAEko kudeaketa-zentroek, nekazari eta abeltzainekiko harremanetan, prebentzioari buruzko aholkularitza eskainiko dute enpresaren kudeaketan kontuan hartzeko osagai gisa.
- Dibulgaziozko fitxak, kartelak, etab. banatuko dira, eta eskualdeko nekazaritza-bulegoen, kooperatiben, elkarten eta nekazaritza-sindikatuaren lokalak baliatuko dira horretarako, bai eta azokak eta bestelako ekitaldiak ere. Lan-arriskuen prebentzioari eta jarduketa garrantzitsuenei buruzko triptiko bat bidaliko da enpresa guztietara.

38. Aipaturiko bi jarduketa-ildoei **hirugarren bat** gehitu behar zaie, epe ertainera eta epe luzera sektorea prebentziorantz sentsibilizatuko duena. Eraginkortasuna lortu nahi da **nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza sektoreetako idiosinkrasiara eta premietara** egokitutako eta hurbileko zerbitzu-egitura egoki bat nekazaritza eta basogintza sektorearen eskura jarrita.

39. **Nekazaritza eta abeltzaintza sektorea:** nekazaritza eta abeltzaintza sektorea geografikoki sakabanatutako sektorea da, problematika zehatzei dagokienez heterogeneoa, enpresa bakoitzeko langile gutxi dituen, prebentzio-kulturarik ez duena, eta enpresa-mota honi erantzuteko alderdi zehatzen inguruko prestakuntza duen langilerik gabea. Hortaz, ez da oso sektore "erakargarria" "benetako" prebentzio-zerbitzuak eskaini nahi dizkioten kanpoko prebentzio-zerbitzuentzat.

Horrelako testuinguruan, bi ardatzen inguruan eraturako zerbitzu-egitura sortzearen/indartzearen alde egiten da: prebentzio-zerbitzu mankomunatu sektorial bat indartzea, enpresek beren premietara hobeki egoki daitekeen berezko edo kanpoko prebentzio-zerbitzua modu askean aukeratzeko duten gaitasuna murriztu gabe, eta enpresaburuak berak prebentzioaren ardura bere gain hartzea sustatzea, enpresaren kudeaketarako teknikari aholkularien beharrezko laguntzarekin.

40. Zerbitzu-egitura horrek prebentzio-zerbitzu mankomunatuan du bere lehen euskarria, Euskadiko Nekazaritzako Kooperatiben Federazioak sortutakotik abiatuta, funtzio bikoitzarekin: alde batetik, prebentzio-zerbitzu gisa jardutea nekazaritza sektorean espezializatutako lan-arriskuen prebentzian soilik diharduten teknikariekin eta, bestalde, kudeaketa-zentroetako teknikarien laguntza- eta aholkularitza-funtzioak hedatzen laguntzea, nekazaritza eta abeltzaintzako mikroeteek prebentziora kudeatzeko aholkularitzari dagokionez. Prebentzio-zerbitzu mankomunatuak zerbitzua eskaini ahal izango die sektoreko erakunde guztiei, eta, horretarako, kudeaketa-zentroen laguntza izango du.
41. Zerbitzu-egitura honek kudeaketa-zentroetan du bigarren euskarria. Zentro horiek prebentziora buruzko aholkularitzarekin kudeaketa tekniko ekonomikoa modernizatzeko egun dituzten zerbitzuak jasoko dituzte, eta, era horretan, nekazaritza-ustiatagietatik hurbileko sare kapilarra ezarriko da. Aholkularitza-zerbitzu hori beren antolaketa arriskuen prebentzian garatzen duten ustiatagiei zuzenduko zaie bereziki, eta nekazaritzako enpresaburuari arriskuen ebaluazioak eta prebentzio-planak prestatzen eta haien jarraipena egiten laguntzea izango da helburua.
42. Zerbitzu-egitura integratu horrek, lehenengo fasean, hala eskatzen duten erakundeei edo ingurune kooperatiboari ez ezik, langileak modu finkoan edo aldi baterako kontratatzen dituzten nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiatagiei, ordezkapen-zerbitzuak dituztenei edo prebentzio-planak ezartzera behartzen duen edozein egoeratan dauden ustiatagiei ere zuzenduko die bere jarduketara. Enpresa-ingurune hori sendotu egingo da etorkizunean, eskudiruaren kontzentrazioarengatik edo ekoizleen elkarketarengatik, eta "lehenbailehen" kudeaketa-zentroetako teknikariak egokitu eta birziklatzeari ekitea gomendatzen du, bai eta, horrekin batera, kanpaina bat hastea ere, nekazaritzako profesionalak modu egoki, arrunt eta zehatzean prestatzeko, enpresaren kudeaketako beste aldagai batzuekin batera, prebentzioaren kudeaketa beren gain hartu ahal izan dezaten.
43. **Basogintza sektorea:** basogintza sektoreari dagokionez, bi azpisektore nabarmen bereizten dira prebentzioaren ikuspegitik: basojabeak eta basogintza-lanetako enpresak.
44. Basojabeek, beren jabetzetako basogintzako lanak egiteko, geroz eta gehiago jotzen dute basoko zerbitzuetarako eta basoen ustiakarako enpresetara, eta, denborak aurrera egin ahala, geroz eta gutxiago dira zuzenean langileak kontratatzen dituzten basojabeak. Noizean behin, jabeek, beren kasa eta familiartekoen edo antzekoen laguntzaz, nolabaiteko arrisku-maila duten lan batzuk egin ohi dituzte beren mendietan; motozerra edo sasi-garbitzeko makina erabiliz, esaterako.

Arrisku horiei dagokionez, MIMEx eta bereziki Euskadiko Basogintza Elkartearen Konfederakundeak eta bere Lurralde Elkarteek, basojabeekiko harreman sistematikoetan, egiten dituzten edo egin ditzaketen lanetan izan ohi diren arrisku nagusiei buruz prestatutako gida zehatzak, aurrerago aipatzen diren prestakuntza-tailer zehatzak, etab. helaraziko dizkiete.

Halaber, konfederakundeak, basoko lanen obra zuzentzen duen BASOEKIN izenekoaren bidez, jabearen, enpresa kontratistaren eta Basoekinen arteko kontratuetan esplizituki barneratuko ditu beharrezko klausulak, enpresa kontratistak, enpresa-jardueren koordinazioari buruzko LPRLaren 24. artikuluan adierazitakoan oinarrituta, prebentzio-planak betetzeko duen betebeharra jasotzen dutenak.

45. Errematatzailen kolektiboak kanpoko prebentzio-zerbitzuak erabili ohi ditu, bere elkartearen (AREFOR) jarduketak prebentzio-zerbitzu mankomunatuak edo basoko lanetako eta basoen ustiatetako prebentzio-ereduaz kanpoko prebentzio-zerbitzuak eskura jartzen laguntzeko (hurrengo arlo estrategikoan jaso da) eta prebentzio-zerbitzu erabilgarriak koordinatzeko eta horiei buruzko informazioa emateko planaren fasean zentratuta.
46. Aurrez aipaturiko basoko lanetarako gainerako enpresei dagokienez, lehenik eta behin, MIMEn bidez eta AREFORekin lankidetzan, horien antolaketa-egitura babestuko da prebentzioaren ikuspegitik enpresa horiek duten egoera ezagutzeko eta elkarrizketa errazagoa izatea lortzeko aurretiko fase gisa.
47. Basogintza Administrazioak, bere aldetik, basoko lanak kontratatuzko eta zuzenean egiteko, kontratistek eta langileek LPRLren arautegia betetzeko betebeharra indartuko du, eta arreta berezia eskainiko dio enpresa-jardueren koordinazioari buruzko LPRLaren 24. artikuluan adierazitakoari. Alde horretatik, basogintza sektorean enpresa-jarduerak koordinatzeko eredu-gida bat prestatzeko lan egingo da.
48. Aurreko jarduketa-ildoari, osagarri gisa, **laugarren bat** gehitu behar zaio: nekazaritza-politikako tresnak sartzea nekazaritza eta basogintza sektoreak LPRLa bete dezan errazteko elementu dinamizatzaile gisa. Ondorioz:
  - Euskal Nekazaritzako Elikagaien Administrazio Publikoak, 2007-2013rako Landa Garapen Iraunkorrerako Plan Berrian, 1. ARDATZEAN, 4. eta 5. neurrietan, beren ustiategiaren etekin globala hobetzera bideratutako aholkularitza-zerbitzuak erabiltzearen ondoriozko kostuei aurre egin behar dieten nekazari eta basozainentzako laguntzak jasotzen ditu, bai eta aholkularitza-zerbitzuak eska daitezkeen gai berriekin indartzen dituzten kudeaketa-zentroentzako laguntzak ere: ingurumena, lan-segurtasuna, animalien ongizatea eta trazabilitatea.
  - Halaber, Euskal Nekazaritzako Elikagaien Administrazio Publikoak, ibilgetzeko dirulaguntza publikoekin (proiektu tekniko ikus-onetsiaren nahitaezkotasuna dakarte), segurtasun-azterketarekin eta ekoizpen integratua deritzaionerako finantzaketa publikoarekin (zehatz-mehatz bete behar dira PRL arauak eta nekazaritzako jardunbide egoki eta higienikoak) egin ohi duen bezala, dirulaguntza publiko sektorial batzuk lortu ahal izateko pixkanaka LPRLa betearaztea aztertuko du.
  - Azkenik, jarduketa-ildo honen esparruan, Euskal Nekazaritzako Elikagaien Administrazioak, 2007-2013rako Landa Garapen Iraunkorrerako Plan Berrian, 1. ARDATZEAN, 6. neurrian, ustiategietan ingurumenarekiko jokabidea hobetzeko eta erkidegoko arau berriak betetzeko eginiko inbertsio materialak eta ez-materialak babesteko dirulaguntzak jasotzen ditu.

## II. ARLOA. Prebentzio-plan zehatzen ereduak

49. Metodologiari dagokionez, prebentzioaren ikuspegi berria dauden arriskuak ebaluatzean, hautemandako arriskuak kendu, murriztu edota kontrolatzeko beharrezko diren prebentzio-ekintzak planifikatzean eta neurri horiek enpresaren erabakietan eta jardueretan modu eraginkorrean barneratzean oinarritzen da. Hala ere, legeria orokorra ez dago egokituta, eraikuntzan egiten den antzera hartzen ditu sektore honen ezaugarri bereziak, eta ez dago kontsultarako materialik, gidarik eta prestakuntza-materialik.

Ikuspegi berri honen aplikazioa errazteko eta adierazitako hutsuneak konpontzeko, **prebentzio-plan zehatzen ereduak** izeneko arlo berri hau sustatzen da, lehenik eta behin, arrisku zehatzak ebaluatzeko jarduerak egitea eta prebentzio-neurri egokiak planifikatzea eta dokumentuak egituratzea errazteko xedez eta, bigarrenik, prestakuntza-planak zehatzen eta diseinatzen laguntzeko (prestakuntzari dagokion arlo estrategikoa).

50. Ondorioz, planaren aldian zehar, alde batetik, plan zehatzen ereduak erabili edota egokituko dira, planak egin dituzten prebentzio-institutuekin akordioak edo hitzarmenak sinatuz edo EAEko jarduera garrantzitsuetarako eta eredu zehatzik ez dutenentzako berezko ereduak eginez. Eredu horiek prebentzio-plan zehatzak ezartzea erraztuko diete enpresaburuei eta prebentzio-zerbitzu mankomunatuiei edo kanpokoei, eta, behar izanez gero, hautemandako arrisku zehatzetarako prebentzio-neurri zehatzak diseinatzen ere lagundu ahal izango dute. 2008ko lehen seihilekoan balidatuta egongo dira prebentzio-plan zehatzen ereduak eta dagoeneko prest dauden eman beharreko prestakuntza-planen taiuketa.

51. Indarreko legeria betetzeko xedez, ereduak prestatzerakoan sortuko diren dokumentuek kontuan hartu beharko dituzte honako alderdi hauek:

- Ustiategiko lan-arriskuak ebaluatzea.
- Ustiategirako prebentzio-jarduera planifikatzea.
- Larrialdietarako plana.
- Langileak prestatzea eta informatzea.
- Ustiategiko prebentzio-eredua zehaztea.
- Kontsulta eta langileek parte hartzea.
- Ustiategian osasuna zaintzea.
- Langileei NBEak ematea.
- Erosketak ustialekuan eskuratzeko irizpideak.
- Ustiategiko istripuak eta gertaerak ikertzea.
- Industria-dokumentuak.
- Makinen egokitzapena.
- Aldi baterako lana.
- Enpresa-jarduerak koordinatzeko irizpideak.
- Bereziki sentikorrek diren ustiategiko langileak.

Ereduak osatzen dituzten osagai horiek honakoekin batera etorriko dira:

- Dagokion dokumentuaren xedearen azalpena laburra, bete beharreko ezaugarriak, gidak, etab.
- Proposatutako formatuak eta erabilera-jarraibideak.
- Dagokion sektoreko PRL-planaren adibide bat, egoera posibleekin, non eta proposatutako formatuak erabili diren konpresioa eta erabilera errazteko.
- Informatzeko, sentsibilizatzeko eta abarretarako kartelen adibideak.

52. Plan honek sustatzen duen zerbitzu-egituratik abiatuta, teknikariei legokieke eredu horiek erakunde bakoitzaren egoera partikularrera egokitzen ari diren enpresei aholkuak ematea. Ereduak garatu dituztenek teknikari horiek prestatzea, aurrez deskribaturiko dokumentazioan oinarritua, pauso garrantzitsua da prebentzio-planen garapenean. Prestakuntza hori, ahal den heinean, azpisektore edo arrisku-mota bakoitzean gutxienez PRL-plan bat ezartzearekin batera egingo da.

53. Azterketa eta materialen urritasuna dela-eta, epe motzera, EAEko nekazaritza eta basogintza sektoreko arrisku nagusiei eta orientabide tekniko eta ekonomikoei emango zaie lehentasuna ereduak prestatzerakoan:

- Esne-ekoizpena.
- Gazta-ekoizpena.
- Hegazti-, untxi- eta txerri-hazkuntza.
- Mahastizaintza, ardogintza eta sagardoa.
- Nekazaritza estentsiboa.
- Baratzezaintzako eta frutagintzako negutegiak.
- Nekazaritzako makinak erabilera.
- Basoko lanak eta basoen ustiaketa.

### III. ARLOA. Informazio-ekintzak eta lanbide-prestakuntzako ekintzak

54. I. eta II. Arlo Estrategikoak azalduta, plan hau prestatzen parte hartu duten eragileek arlo estrategiko garrantzitsutzat dute **prestakuntza**, bai zuzenean sektorean lan egiten duten pertsonentzat, bai sektore horretako lan-arriskuak prebenitzeko antolaketan zerbitzuak emango dituztenentzat ere.

Prebentziorako prestakuntza EAEn plan honekin hasi ez den arren, estrategia global bat azaldu nahi da, hemen proposatzen dena bezalako plan integral bat ezartzeak dakartzan premiei erantzungo diena. Estrategia hau, prebentzio-zerbitzuen araudiak ezartzen dituen programak eta kualifikazio-mailak kontuan hartuta, **enpresaburuak, teknikariak eta sektoreko langileak prestatzeko ildo** bat garatzean datza, oinarritzko ikastaroak, ikastaro laburrak, tailer praktikoak eta abarrek, "prebentzio-plan zehatzen eredueta" hautemandako premietatik abiatuta.

Prestakuntza etengabe garatzeko, 2008ko lehen seihilekoan, urte horretako lehen hiruhilekoan prestatu eta idatzi ondoren, OSALANek eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak lankidetzaren hitzarmena sinatuko dute EAEko nekazaritza eta basogintza sektoreko lan-arriskuak prebenitzeko prestakuntza-plan bat diseinatzeko eta abiarazteko. Hauek izango dira helburuak:

- Izan daitezkeen arriskuen aurrean prebentzio-jarrerak irakastea.

- Prestakuntzaren bidez, nekazaritza eta basogintza sektoreko lanetarako jokabide seguruak sustatzea.
- Lanpostuaren arrisku zehatzei buruzko eta arrisku horiek kontrolatzeko prebentzio-neurri egokiei buruzko prestakuntza ematea.
- Langileek prebentzio-lanetan parte har dezaten sustatzea.
- Enpresek langileei nahitaezko prestakuntza emateko duten betebeharra betetzen laguntzea.

Lan-arriskuak prebenitzeko prestakuntza-planeko ikastaroak ematen parte hartzeko aukera duten erakunde publiko edo pribatuak Hezkuntza Sistemak onartutako eta homologatutako zentroak edo prestakuntza-zentro baimenduak edo prebentzio-zerbitzu akreditatuak izan behar dute, ezarritako betekizun pertsonal (irakasleak eta administrariak) eta materialak betetzen dituztenak. Zentro horiek antolatuko dituzte ikastaroak eta dagozkien ziurtagiriak emango dituzte; parte-hartzaileei, enpresei eta OSALANI bidaliko zaizkie ziurtagiriak.

Aurreko paragrafoan aipaturikoen gain, ez da beste mugarik izango ikastaroak emateko. ITSASMENDIKOIk izango du lehentasuna sektoreko enpresaburuak eta langileak prestatzeko oinarrizko ikastaroak eta ikastaro zehatzak emateko, nekazaritza eta basogintza esparruko prebentzioan diharduten eragile sektorialen eta profesionalen laguntzaz. ITSASMENDIKOIk datu-base batean zentralizatuko ditu emandako ziurtagiriak.

Prestakuntza oso zehatza eta praktikoa izango da langile bakoitzaren arriskuen arabera, publiko helduari zuzendua eta gai orokorrekin gainkargatu gabea. Informazio egokia eskuratzeko bidea eta prestakuntza azkarra, eraginkorra eta malgua eskaintzen duten tresnak eta kit hezitzaileak garatzea komeni den aztertuko da.

55. Bigarren jarduketa-ildo honen barruan gauzatu beharreko prestakuntza-ekintzen artean, plana bera gauzatzearen ondoriozko eskaeren arabera egokitu ahal izango baitira ekintza horiek, honako hauek aipa daitezke:

1. Prebentzioko oinarrizko ikastaroa, 39/1997 Errege Dekretuak arautua, arriskuen oinarrizko ebaluazioa egiteko eta, hala badagokio, prestakuntza-mailarekin bateragarriak diren prebentzio-neurriak ezartzeko gaitzera bideratua dago (39/1997 Errege Dekretuaren 35. art.) eta arriskuen ebaluazioak egiten dituzten eta ustiatagirako prebentzio-neurriak ezartzen dituzten nekazari eta enpresaburuei zein arriskuen oinarrizko ebaluazioak egiteko prebentzio-jardueretarako izendatutako besteren konturako langileei zuzendua dago.  
Ikastaro parekatu hau egitea baldintza izango da enpresaburuak prebentzioa bere gain hartu ahal izateko eta baldintza izan daiteke nekazariak edo enpresaburuak prebentzio-zerbitzu mankomunatuak jaso ahal izateko.
2. Arriskuak ebaluatzeko tailer-ikastaroa, gehienbat oinarrizko ikastaroa egin duten nekazariei zuzendua eta nekazaria arriskuen ebaluazioa egiteko eta ustiatagirako prebentzio-neurri zehatzak planifikatzeko gaitzera bideratua dago. Azpisektoreka antolatuko dira tailerrak, eta prebentzio-jarduera errazago garatzeko diseinatutako eredu-fitxa batzuk izango dira abiapuntu.

3. Sektore osora zuzendutako eta nekazaritzako instalazioak eta makinak gaizki erabiltzeak dakartzan arriskuak erakustera eta arrisku horiek nola saihestu irakastera bideratutako ikastaro zehatzak: segurtasuna traktorea erabiltzerakoan, ergonomia, segurtasuna instalazioetan eta nekazaritzako makinak erabiltzerakoan, nekazaritzako ustiaketan motozerra egoki erabiltzea.
4. Landare-osasunerako produktuen aplikatzaile ikastaro zehatzak, oinarrizkoa bata, eta maila kualifikatukoa bestea. Probak gainditutakoan, txartelak emango zaizkie parte-hartzaileei. Lehenengoaren helburua landare-osasunerako produktuei eta ingurumenean duten eraginari buruzko oinarrizko ezagutza ematea da, eta nekazariei eta aplikatzaileei zuzendua dago. Bigarrena toxiko edo oso toxiko gisa sailkatutako gasik sortzen ez duten nekazaritza-erabilerako landare-osasunerako produktuak erabiltzen dituzten ekipo-arduradunak prestatzera bideratua dago, eta oinarrizko maila dutenentzako eta era horretako lanetarako ustiatzean langile laguntzaileak enplegatzen dituzten nekazarietarako da.
5. Basogintza-tailerrak, basogintza sektorerako zerbitzu-enpresei zuzenduak eta langileek, beren espezialitatearen arabera, makinak, produktuak, ekipamenduak eta prozesuak mendian egoki erabiltzera eta basoko gainerako lanetan prebentzio-neurriak hartzera bideratuta daude. Basogintza sektoreko langileen prestakuntza praktikoa izango da, lantokian, eta gehienez 3 orduko iraupena izango du koadrila bakoitzeko, nahiz eta iraupena desberdina izan daitekeen pertsona bakoitzaren esperientziaren eta trebetasunaren arabera. Ikastaroa amaitzean, langile bakoitzak bere eginkizunak segurtasun-baldintzetan egiteko ohitura zuzenak hartu eta bereganatu dituela ziurtatuko da.  
Emandako prestakuntza jaso eta baliatu duten langileentzako "txartel zehatza" ezartzeko aukera aztertuko da. Enpresek ITSASMENDIKOiren datu-basean ziurtagiri zentralizatuen berri izatea prestakuntza-ikastaroak gainditu dituzten langileak kontratatzea errazteko tresna bat izan daiteke. Basojabeei dagokienez, egiten dituzten jardueretarako arriskuak prebenitzeko dokumentuen bidezko prestakuntza dago, Euskadiko Basogintza Elkarteen Konfederakundearen aldizkariaren bidez ezagutaraz daitekeena, laguntza edo baimen administratiboan eta abarren izapideak baliatuz.
6. Altueran inausketa lanak egiten dituzten enpresentzako ikastaroa, altuerako inausketan lan egiten duten enpresei eta langileei zuzendua, eta arrisku handiko lan horietako lan-arriskuen prebentzioan sakontzera bideratua. Berrikusi eta ikusi zein enpresei zuzendua dagoen.
7. Landa-turismoko lan-arriskuak prebenitzeko ikastaroa, landa-turismoen edo nekazaritza-turismoen jabeei zuzenduak eta landa-turismo sektoreko arriskuak eta horri buruzko legeria aurkeztera eta har daitezkeen prebentzio-neurriak eta larrialdi-kasuetarako jarduketa posibleak aztertzea bideratua.
8. Beste prestakuntza-ekintza batzuk ere egiten dira, prestakuntza-zikloen bidez, prestakuntza-ikastaro jarraiak eta intentsiboak, eta nekazaritza- eta ingurumen-laguntzen hartzaileei hitzaldi batzuetara joateko eskatzen zaie.

### AURREIKUSITAKO IKASTAROAK

IKASTAROAK	2007	2008	2009	Guzti ra	Parte-hart zaileak	ordu/ikasta ro
1. Prebentzioko oinarritzko ikastaroa	21	10	10	41	1025	30
2. Arriskuak ebaluatzeko tailer-ikastaroa	25	16	14	55	1375	10
3. Landa-turismoko prebentzio-ikastaroa	5	5	4	14	350	16
4. Traktorearen erabilera	3	3	3	9	135	15
5. Ergonomia	3	3	2	8	120	4
6. Nekazaritzako makinaren erabilera	3	3	3	9	135	15
7. Motozerraren erabilera nekazaritza-ustiaketetan	3	3	3	9	135	4
8. Baso-koadriletarako ikastaroa	42	42	41	125	625	8
9. Altuerako inausketako erreskate-ikastaroa	1		2	3	36	10
10. Nekazaritza- ingurumen-laguntzak eta	5		0	5	125	4
11. Landare-osasunerako produktuen aplikatzailea (oinarritzko maila)	6	6	6	18	450	25
12. Landare-osasunerako produktuen aplikatzailea (maila kualifikatua)	2	2	2	6	150	72
<b>GUZTIRA</b>	<b>119</b>	<b>93</b>	<b>90</b>	<b>302</b>	<b>4661</b>	

56. Planaren bilakaeraren arabera eta espezialistarako ezean, aurreko ildoak **bigarren ildo** batekin osatuko litzateke, sektoreko PRLrako **nekazaritzako eta basogintzako profesionalak eta teknikariak** prestatzera bideratutako ildoarekin, hain zuzen. Urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen iragankorraren arabera, horren bidez onetsi baitzen prebentzio-zerbitzuen araudia, goi-mailako prestakuntza egiaztatu ahal izateko, arriskuen prebentzioan prestakuntza-jarduerak garatzeko gaitasuna duen eta dagokion Lan Agintaritzaren baimena duen erakunde publiko edo pribatu batek emaniko ziurtagiria eduki beharko litzateke. (39/1997 Errege Dekretua eta 1997/06/27ko Aginduaren III. Kapituluak).

#### IV. ARLOA. Lan-osasunaren zaintza

57. Arautegiak ezartzen duenaren arabera, osasunaren zaintza bermatu behar du enpresaburuak; arriskuen arabera, zehatza izan behar du, borondatezkoa, isilpekoa, iraupen luzekoa, aldizkakoa, eta barne hartu behar du bereziki sentikorrek diren langileen babesaren bereziki.

"Lan-osasunaren zaintza" arlo estrategikoaren garapenarekin hautemandako zailtasunentzako irtenbideak bilatu nahi dira sektorean osasuna zaintzeko eta azterketa mediko zehatzak egiteko. Planaren amaieran osasunaren zaintza eraginkorra langile finko guztiengana eta behin-behineko aholkari eta langile gehienengana iristea da helburua, jardueran hasi aurretik, lanean diharduten bitartean eta lan-bizitzaren ondoren. Helburu horrekin, **bi jarduketako-ildo** zehaztu dira.

58. Lehenengoa **denentzako osasunaren zaintza lortzera** bideratua dago, honelako ekintzak garatuz:

- Enpresei zuzendutako informazio-kanpainak, lanaren arriskuen arabera, langileen osasuna zaintzeko betebeharrari buruzkoak.
- Langileei zuzendutako informazio-kanpainak, osasunaren zaintza zertan datzan, zein onura

dakartzan eta zer eska daitekeen azaltzen dutenak.

- Oinarrizko Arretako profesionalentzako prestakuntza zehatza, sektorearen arrisku zehatzei eta lanbide-gaixotasunei buruzkoa.

Laneko osasuna hobeto zaintzeari begira, egoera guztiak baloratuko dira ustiapenen ezaugarri geografiko, tekniko eta sozialen arabera.

59. Bigarrena **sektorean osasunaren zaintza hobetzer**a bideratua dago, honelako ekintzak garatuz:

- Arrisku-ebaluazioetan lan bakoitzeko arriskuak jasotzea, eraginpeko langileak identifikatuta, osasunaren zaintza egokia programatu ahal izateko.
- Ustiatgien sakabanaketa eta osasun-instalazioen urruntasuna dela-eta, osasunaren zaintza ezartzeko zailtasunaren aurrean, alternatibak bilatzea; adibidez, beharrezko diren osasun-azterketa guztiak egin ahal izateko ekipamendua duten unitate mugikorrek gaituz, jarduketa-eremuen araberrako lan-egutegiarekin eta zerbitzu jarraia eta malgua eskainiz, sektoreko langil guztiengana iritsi ahal izateko.
- Nekazaritza sektorean osasunaren zaintzako jarduerak orientatzeko oinarrizko protokolo bat prestatzea eta osasunaren zaintzaren eta arriskuen ebaluazioaren emaitzak jasotzen dituen Osasun eta Arrisku Libreta Indibiduala sortzeko aukera aztertzea.
- Langileen osasun-egoeraren berri izateko eta herri handietan aldaketak hautemateko aukera ematen duten prozedurak sustatzea.
- Osasunaren zaintza zehatzaren ondoren langileari horren berri ematen zaiola kontrolatzea. Lanpostu bakoitzerako langilearen gaitasunari buruzko ondorioen berri emango zaio enpresaburuari, dagozkion egokitzapenak egiteko.

60. OSALANek, erakunde egokiekin batera (Osakidetza, adibidez), osasunaren zaintza eraginkorra, planaren amaieran, sektorean lan egiten duten ahalik eta pertsona gehienengana irits dadin beharrezkotzat jotzen diren ekintza guztiak sustatuko ditu.

## V. ARLOA. Idazkaritza Teknikoa.

61. "Idazkaritza tekniko" arlo estrategikoa arlo horizontala da, planean zehazturiko jarduketa-ildoak planifikatzen eta ezartzen laguntzeko balio izatea duelako helburu. Komenigarria dirudi sektorearen inguruko arauak biltzea, EAEko nekazaritza eta basogintza sektorean lan-arriskuen prebentzioaren egoeraren jarraipena egitea, egin diren interes sektorialeko lanak eta esperientziak batzordearen eta gai honetan interesa duten pertsonen eskura jartzea, arriskuak ebaluatzeko ereduak eta prebentzio-planak egiten laguntzea eta abar bezalako funtzioak modu jarraian egin ahal izateak, planak behar bezala funtziona dezan.

62. Lehenengo jarduketa-ildoak, "**behatokia**" izenekoak, aurreko paragrafoan aipaturiko zerbitzuak bezalakoak estaltzea du helburu. Zerbitzu horien hartzaile nagusiak batzordea bera, prestakuntzaren arduradunak eta ustiatzietan eta nekazaritzako eta basogintzako enpresetan lan-arriskuak prebenitzeko berriazko plan zehatzak prestatzeaz arduratzen direnak izango dira.

Behatoki honek, aipaturiko funtzioez gain, "Kontsulta eta Bisita Zerbitzua" ere eskainiko du, II. arlo

estrategikoan jaso diren eta eragile sektorialen eskura jarri diren ereduaren ezarpenari buruzko zalantzak argitzeko. Kontsulta eta Bisita Zerbitzuak, zalantzak argitzeko ez ezik, alorreko lanetan diharduten eragileen arteko lankidetzak finkatzeko, prestakuntza zehatzaren premia osagarriak hautemateko, ezarpenen jarraipena errazteko eta abarretarako ere balio dezake.

OSALANeko teknikariek eta prebentzio-zerbitzu mankomunatuak teknikariek "behatokiarik" agindutako oinarriko eginkizunak egingo dituzte. Behatoki sektorial hori, lan-segurtasuneko eta -osasuneko euskal behatoki orokorrago bat sortuz gero, organikoki eta funtzionalki bertan barneratuko litzateke, zerbitzuetan bikoiztasunik izan ez dadin.

63. Halaber, hemen proposatutako plana gauzatzeko, bigarren jarduketa-ildo bat sortu da, "PRL dokumentazioa" izeneko, dokumentu grafikoak, dibulgaziozko liburuxkak (oso sinpleak, testu gutxirekin, marrazki askorekin, ulertzen eta gogoan hartzen errazak), eskuliburuak etab., informatzera, prestatzera eta prebentzioa modu egokian kudeatzera bideratuak, EAEko erabiltzaileen eskura jartzeko. Prestatutako materialaren hartzaile nagusiak enpresaburuak eta langileak, horietako asko prestakuntza-maila txikia dutenak edota atzerritarrek, prestatzaileak eta ustategietan eta nekazaritzako eta basogintzako enpresetan lan-arriskuak prebenitzeko berariazko plan zehatzak egiteaz arduratzen direnak izango dira.

Prebentzioaren kultura sustatzeko beharra ezagutarazteko asmoz, herrietan bizi diren biztanleentzako eskuliburuak eta gidak prestatuko dira.

64. Sektore honetako langileen segurtasuna eta osasuna sustatzeko informazio zehatz interesgarria biltzen duen webgune bat sortzea ekintza garrantzitsua izango da bigarren jarduketa-ildoaren barruan.

65. Ildo hau zein aurrekoa garatzeko, Euskal Administrazio Publikoak bere bitartekoekin babestuko ditu edota kanpoko bitartekoak kontratatuko ditu edota diruz lagunduko ditu planean ezarritako helburuak lortzeko beharrezko diren kontsulta- eta bisita-zerbitzuak, azterketak egitea, giden argitalpena, eskuliburuak, etab.

#### IV. AURREKONTUA ETA PLANAREN KUDEAKETA

66. Aurreko kapituluan adierazi bezala, EAEko nekazaritza eta basogintza sektoreko lan-arriskuak prebenitzeko plan integralaren helburua lan-baldintzak hobetzea eta prebentzio-printzipioa barneratzen duten lan-sistemak aplikatuz istripuak eta lanbide-gaixotasunak saihestea da.
67. Planak enpresan prebentzio-plan zehatzak ezartzea enpresaburuaren eta bertan lan egiten dutenen erantzukizuna baino ez dela zalantzan jartzen ez duen arren, hobekuntza hori sustatzeko, planean zehazten diren 5 arlo estrategikoak eta 11 jarduketa-ildoak gauzatzeko finantza-funts publikoak behar dira.
68. Ondorengo taulan laburbiltzen dira Euskal Administrazio Publikoak 2007-2009 aldian planaren arlo desberdinak gauzatzeko eman beharreko diru-kopuruak, nahiz eta, planaren bilakaeraren eta urteko aurrekontu-xedapenen arabera, zuzenketak egin litezkeen hemen adierazitako zifretan.

ARLOAK	Aurrekontua (euroak)	Finantziakzioa	Adierazleak
<b>Informazioa/Dinamizazioa</b>	470.000	Euskadiko Nekazaritza Administrazio Publikoa (PDRS 07-13)	PRL kudeaketa-aldagai gisa barneratzea 600 ustategitan.  <i>Ez dira taula honetan jaso inbertsioetarako laguntza posibleak.</i>
<b>Prebentzio-ereduak</b>	60.000	OSALAN eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila	12 prebentzio-eredu zehatz prestatzea.
<b>Prestakuntza</b>	740.710	OSALAN, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila eta ITSASMENDIKOI	303 ikastaro 4.681 parte-hartzaile (goi-maila posible bat barne)
<b>Lan-osasunaren zaintza</b>	60.000	OSALAN	
<b>Idazkaritza teknikoa</b>	101.000	OSALAN eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila	PRL web sektoriala. Behatokia 12 gida/eskulibururen argitalpena.
<b>Guztira</b>	<b>1.431.710</b>		

Aurrekontuak urteen arabera sailkatuko dira urteko konpromisoak hartuz urteko bakoitzeko planetan eta kudeaketan. Eusko Jaurlaritzaren ardura da plan hori osorik aplikatzeko kostu ekonomikoak, giza baliabideak eta beharrezko materialak gain hartzea, eskumenak direla-eta foru aldundiei dagozkienak salbu.

69. Planerako erabiltzen den aurrekontua kudeatzeko, OSALANek, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak eta 3 Foru Aldundietako ordezkariak lantalde bat sortuko dute 2008ko lehen seihilekoan honako funtzio hauek egin ditzan:

- Plan integral honen esparruan, urteko kudeaketa-planaren proposamena prestatzea, batzorde sektorialaren orientabideak, planaren betetze-maila eta urteko aurrekontu-hornidura zehatzak kontuan hartuta.
- Onartutako urteko kudeaketa-planaren jarraipena egitea.
- Behar izanez gero, plana behar bezala garatzeko neurri zuzentzaileak proposatzea.
- Urteko kudeaketa-memoria egitea.
- Planaren emaitzen azken balantzea egitea.

Lantalde horrek egiten dituen ekintzen berri emango zaie batzordeari eta dagokien komiteei.